



## MASKURIKO LITOTRIZIA ENDOSKOPIKOA

Prozedura honen bitartez, maskurian dituzun harriak kendu nahi dizkizugu; horiek puskatzeko eta errazago ateratzeko, aparatu asko erabiltzen dira (ultrasoinuak, laserra...), harriek nolako tamaina duten. Interbentzioa bukatzean, zunda bat jarriko dizute maskurian gernu-garbigailu bati lotua, zenbait orduz, eta etxerako baimena ematen dizutenean kenduko dizugu.

### Nola egongo zara kirurgia ostean?

Teknika honek zenbait konplikazio ditu, eta jakinaren gainean egon behar duzu:

- Beharbada, ez dira harri guztiak erauziko.
- Gernua infektatu egin daiteke, eta sepsia izateko arriskua dago.
- Uretraren estenosia gerta daiteke (uretra estutzea).
- Gernu-erretentzioa gerta daiteke; maskuria zundatuta zuzenduko da hori.

### Normala da lehen egunetan:

- gernuarekin odol pixka bat isurtzea (hematuria)
- polakiuria izatea (hau da, mikzio sarria)
- min arinak izatea sabelpean.

**Baina ager daitezkeen konplikazioak kontsulta medikoan baztertzeko, sintoma batzuk izan beharko dituzu, besteak beste:**

- Sukar handia (38 gradutik gorakoa).
- Hematuria nahiko handia.
- Zundatzeko moduko gernu-erretentzioa.

Edozein zalantza duzula, deitu Urologia Zerbitzura, eta kontsultatu profesional taldeari edo **joan urgentzietara**.

### Zer egin behar duzu etxean?

- Atsedentxo: ez egin ahaleginik, kirol zakarrik eta jarduera astunik interbentzioa egin eta 72 ordu igaro arte.
- Medikuek analgesikoa emana izango dizu minerako.
- Hartu likido asko, bi eta hiru litro artean, egunero.
- Lehen egunetan (bi-hiru egunez), egin dieta biguna, eta pixkanaka itzuli zure betiko dietara.
- Beste tratamendu bat hartu ohi baduzu, medikuek esango dizu noiz hasi behar duzun hura berriz hartzen.

Sintoma horietakoren bat baldin baduzu, joan medikuarengana edo Larrialdietara.

- Sukar handia (38 gradutik gorakoa).
- Hematuria (odola gernuarekin nahasia) edo odoljario handi samarra.
- Gernu-erretentzioa.

Edozein zalantza duzula, deitu Urologia Zerbitzura, eta kontsultatu profesional taldeari edo joan Larrialdietako Zerbitzura.

### Zer ondorio izango du zure jarduera sexualean?

48 ordura ekin ahalko diozu berriz jarduera sexualari.